

Desgobernuan



Aingeru Epaltza
IDAZLEA

kuskizun polita antzezten ari dira joan den abendu-ko hauteskundeen ondoko agertokian. Rajoy nokeatu itxuran. Sánchez noraezean. Rivera predikari. Iglesias prestidigitadore. Gainerako liderak, begira, hitzaren bi adieretan. Hilabetea ederki joana da hauteskontziezikiko legea bete genuenetik eta oraino ez dago garbi nor izanen den Moncloako maizterra, ezta botoa ematera ez ote garen berandu baino lehen itzuli beharko. Behin-behinekotasuna bizi dugu, eta horrek ezinegona ekartzen dio ekonomiari eta zenbaiten arimari. Hainbatek gauzak zirt edo zart trenkaturik ikusi nahi dituzte, zeren kontra jo behar duten lehenbailehen jakiteagatik baizik ez bada ere. Niri, aldiz, gozoa zait desgobernu hau. Antzezlan, bederen, urrundu egin da ohiko gidoi-lerro aspergarrietatik. Aspaldi-ko partez, interesgarri dabil espainiar politika.

Gustatu zait Podemosen lotsagabekeria. Bere proposamenarekin, kortesia arau guztiak hautsi ditu Sánchezekin. Lerro hauek idazteko tenorean, PSOEren teilatuan da espainiar pilota. Haren arimaren erdiak Iglesiasekin akordioa egitera bulkatzen du. Bertze erdiak nahiago luke PPrekin eta Ciudadanosekin bere abstentzioa hitzartu, popularrek goberna dezaten. Kotsolamendu saria Rajoyren burua izan liteke. Horren alde lanean ari dira, esku azpiz nahiz agerian, Estatuko nahiz Europako aginte faktiko guztiak.

Gasteizko eta Iruñeko gobernuak, berriz, lehenbizikoa dute maite. “Sánchez-Iglesias operazioak”, egia bilaka dadin, sei diputatu jeltza-leen sostengua behar du. Alderdiak jadanik bere prestutasuna adierazi du horretarako. Urkulluren neska-mutilendako ametsa da berreskuratzeko Estatuko politikan eragiteko XX. mendearen azken urteetan izan zuten ahalmena. Begi-bistakoak dira, bertzalde, Uxue Barkosi sozialistak gobernatzen ikusteak ekarriko lizkioken onurak, Podemos bere sozioaren eta EAJ bere koaliziokidearen laguntzaz baldin bada. Madrilekiko tira-birak ezitzeak eta Iruñean PSN oposizio gisa desaktibatzeak arnasa emanen lioke jadanik sobera fronte irekita dauzkan gobernuari.

Horren guztiaren aitzinean, isilik bezain zuhur dago Bildu. Zer zentzudun bilakatu den denbora gutian ezker abertzalea! Hark ere beso erdia emanen luke Sánchez gobernuburu izatearen truke, orain arteko kartzela politikan ireki litezkeen artesien esperantzan. Itxurak itxura, sukar katalana ikaragarri apaldu da gurean.

Bertze kontu bat da zer aterako den zurrumbilo gaitz horretatik. Azken 40 urteko historiak ongi erakutsi du zein izaten den beti sozialistek bidegurutzeetan hartzen duten norabidea. Nafarroan aunitz dakigu horretaz. Hura etorri arte, goza gaitezen desgobernuaz. ■

Geriza



Itxaro Borda
IDAZLEA

Autoak zirurikan pasatzen ziren orduan adineko emazte ile zuriduna zegoen afixa handi bati begira. Poltsa astunak pausatuak zituen. Andere moko mehe eta konkorra ez zen kantitzen, ez zen higitzen... hormatua ematen zuen. Ikustez ezagutzen nuen eta geltokitik burrustan isurtzen ziren jendeen joan zaintsuaz axola gutxi zuela iruditzen zitzaidan.

Frantzia behere horretako *Le Refuge* aterpeen aipamena egiten zuen afixa erraldoiak. Diruz laguntzeko deiarekin, alabaina. Behin, idazkiaren paretik pasatzean mutiko gazte bat lurrera tuka zelatatu nuen: Romain, 18 urte, bere gurasoen

etxetik kanporatua, homosexuala delako. Antza, taulako hitzek ez zuten andere unatua izutzen, are gutxiago arranguraz kiribilkatzen. Alderantziz, zorabiatua zirudien.

Lanera nindoan. Eguna ez zen oraino argitua. Ateri zen bederen. Espaloian gelditu nintzen afixari so zetzan emazteari amultsuki beha. Pentsa, begi-kordela ederra osatzen genuenez!

Agian bere istorioa zuen emakume amilduak han irakurtzen, lesbiana zitekeen edo menturaz pan-sexuala, Christine & The Queens taldeko kantariak irribarrez zioen bezala.

Gauza segurra da: gaztaroan ala gaurkoan, geriza aukerarik ez zuen. ■